

# ZALDIBI PLAZARA!

Zaldibiko Herri Antzokian,

2021eko maiatzaren 19an

# HIRITIK AT

Zaldibi Plazara! prozesuaren ondorioak

# ZALDIBIAKO UDALA

2021ean plazan gauzatuko direnak

AURRERA BEGIRA ZER?




# Zaldibia PLAZARA!

## HIRITIK-AT

# PARTE HARTZEA DATUTAN

SEKTOREKA:
6 SAIO (29 EMAKUME/ 9 GIZON)

HAURREKIN:
2 SAIO ( 13 EMAKUME/ 11 GIZON)

IREKIAK:
1.SAIOA (12 EMAKUME/ 12 GIZON)
2.SAIOA (13 EMAKUME/ 4 GIZON)



# GAI KLABEAK

- ESTALPEA
- HAUR PARKEA
- KANALA
- SANTA FE KALEA
- ELEMENTUAK ETA ALTZARIAK
- MANTENDU BEHARREKOAK
- NATURA
- EGUZKITZAPENA
- SARRERAK

# ESTALPEA

- Frontoia estaltzea da herritarren lehen aukera.
- Frontoia estaltzea posible den despejatzeko beharra agertzen da.
- Estalperako 2. aukera Joxepane eta udalaren artean.
- Estalpea plazan kokatu ezkero frontoiko estalpeak izango lukeena baino dimentsio txikiagokoa

# ESTALPEA

- Gune polibalente bat estali behar duela argi dago, ekimen eta jarduera ezberdinetarako
- Ekimen handietarako ahalbidetzeko malgutasuna, handitzeko aukera, egitura gehigarri bat jartzeko aukera…
- Argitasuna pasatzen uzten duten itxitura materialak
- 4- 5 metro inguruko altuera
- Euri eta haizetik babesteko alboak ixteko aukera

# HAUR PARKEA

- Parkea plazan integratuago, gaur egungo eremua baino eremu zabalagoa hartuz.
- Jolas elementuak: oreka zirkuitoa, tirolina, txirrista, kolupioak...
- Plazan jolasa bai, baina baloiak espazioa okupatu gabe
- Jolas gune naturalizatua, pedagogía berriak
- Kota aldaketak ahalbidetuz bertan topografia aldaketak, eskailerak, txirristak..

# KANALA

- Uraren presentzia proposamenetan, estankea, iturria, errekara jeisteko gunea..
- Urarekin jolastea ahalbidetu baina segurtasuna bermatuz
- Kanal edo putzu txiki batzuk agertzeko aukera
- Kanala bistaratzea

# SANTA FE KALEA

- Santa Fe kalean oinezkotze eta trafikoa murriztearen inguruko neurriak hartzea
- Plaza beste aldearekin konekatzea
- Kalearen inguruko lanketa zehatz baten beharra plazaren diseinuarekin batera

# ELEMENTU ETA ALTZARIAK

- Egurrezko banku luzeak, taldeka jartzeko aukera eta bi aldetara jartzea ahalbidetzen dutenak
- Altzarien materialak goxotasuna trasmitu behar duela, zura. (Mantenimendua?)
- Jende heldua era erosoan eseri dadin, kolektibo honentzako jesarlekuak, (altuera, eusteko guneak...)
- Meriendatu edo bestelako ekintzak egiteko mahaiak

# ELEMENTU ETA ALTZARIAK

- Iturria: edan eta jolasteko
- Zakarrontziak, farolak… beharrezko dira
- Plazaren argiztapenari harreta jarri
- Pabimentuarekin, natur elementuekin (zuhaitzak, berdegunea…), jolas eremuaren eta Joxepane aurreko eremuaren arteko lotura egitea.

# MANTENDU BEHARRA

- Frontoiko petrila
- Txistua (kokapena aldatu daiteke)
- Terrazak parez pare egotea
- Zuhaitzak (kokapena moldatu daiteke)

# NATURA

- Naturak plazan presentzia gehiago
- Natur elementuek espazioan presentzia gehiago
- Kontuan hartu natur elementuek eguzkitzapenean duten eragina negua/uda , baita zoruan eta mantenimenduan duten eragina

# EGUZKITZAPENA

- Garrantzia ematen zaio bai gune eguzkitsuak ,zein itzaletan egoteko guneak izateari.
- Estalpeak plazan sortu ditzekeen itzalen inguruko kontrol zorratza egitea aipatzen da.

# SARRERAK

- Gaur egun dauden oinezko sarrerak mantendu
- Kotxeen sarbidea Joxepane atzetik bakarrik




# ZALDIBIKO UDALA

# Zaldibi Plazara!-tik gaur arte

- 2019-2020 artean egin zen plaza berriaz hausnartzeko prozesua.
- Ondorio eta ezaugarri orokor interesgarriak bildu dira, hurrengo urratsak definitzeko balio handia dutenak.
- Plazako estalpearen gaia bideratzeko beharra da lehentasunetako bat.
- Udaletxe zaharra botatzean irekiko den perspektiba eta Covid-19ak azalarazi dituen hausnarketa eta ondorioak lagungarriak izango zaizkigu plaza berriaren definizioan.



# Plazako estalpea

- 2015ean kontsulta egin zen Ondare Sailean eta frontoia estaltzeari buruzko ezezko iritzia eman zuten.
- Prozesuaren ondoren, 2020an, berriro egiten da kontsulta eta 2021eko martxoan jaso dugu erantzuna:

- *Frontoia ez da babes bereziko edo ertaineko kultur ondasuna eta ez du horrelako espedienterik hasita. Horrenbestez, aurkeztutako eskaerak ez luke baimenik eskatu beharrik izango Gipuzkoako Foru Aldundiari.*
- *Baina Santa Fe elizaren albo batean kokatuta dagoenez, frontoia estaltzeko esku-hartzeak zuzenean eragiten dio elizari. Frontoia estaltzeak, elizaren eta honen inguruaren ondare balioen kontra nabarmen egiten du. Santa Fe eliza balizko eremu arkeologikoa da, eta frontoia, babestutako 15 metroko eremuan aurkitzen da.*
- *Beraz, elizaren ondare-balioen garrantzia kontutan hartuta, eta frontoia estaltzeak elizaren ondare balioetan izango lukeen eragina aztertuta, berretsi egiten dugu 2015ean bidalitako txostena, bai eta 2011n Eusko Jaurlaritzari egindako eskaera ere, eliza kultura-ondasun kalifikatu gisa sartzeko.*

- Honek frontoia estaltzeko aukera bideraezina egiten du gaur egun.

# Plazako estalpea (II)

- Ondare Sailak 2015eko kontsultan argitu zuenez, saloiak bota, fatxada txukundu eta elizaren alde banatako jatorrizko aterpeak berreskuratzea ontzat emango luke.



- Saloiak: “ruina” deklaratu eta botarazteko espedientea has dezake Udalak.
- Aterpeak: Eliza ezin da derrigortu alboetako aterpeak berreskuratzera. Biak eginda 130$m^2$+ 149 $m^2$ dira plazan.
- Elkarrizketarako bide bat ireki daiteke berriz. Hala ere, orain arteko esperientzia ugaritan, beti Gotzaitegiaren mugarekin topatu gara.
- **Aukera ezberdinak landu beharko dira estalpe beharrari erantzuteko.**

# Plazako lanak 2021ean

<table>
<tr><th colspan="2">EKAINA</th><th>UZTAILA</th><th>ABUZTUA</th></tr>
<tr><td colspan="2">- Udal zerbitzuak lekualdatzea<br>- Udaletxe zaharra botatzeko lanak esleitzea<br>- Plazako herritartze lanen deialdia irekitzea<br>- Udaletxe zaharreko altzariak eskuratzeko deialdia irekitzea</td><td>- Plazako herritartze lanak esleitzea<br>- Udaletxe zaharreko altzariak esleitu eta jasotzea</td><td>- Udaletxe zaharra botatzeko lanak egitea</td></tr>
<tr><th>IRAILA</th><th>URRIA</th><th>AZAROA</th><th>ABENDUA</th></tr>
<tr><td colspan="4">- Plazako herritartze lanak hasi eta amaitzea<br>- Udaletxe berrian zerbitzu guztiak martxan jartzea</td></tr>
</table>

## Plazako lanak 2021ean

## Plazaren herritartzea








# AURRERA BEGIRA

# ESPAZIO PUBLIKOA

## herritarrak, eragileak, adituak eta erakundeak elkarlanean

**2021eko irailetik aurrera**, pertsonak eta natura erdigunean jarriko dituen herrigintza irizpide hartuta, Zaldibiako Udala **herriko espazio publikoaren inguruko lanketa eta prozesu batean barneratuko da**.

**Honen helburua, Zaldibiako plazaren eraberritzeaz haratago, espazio publikoa bere osotasunean ulertu eta lantzea izango da.**

Zaldibiako plazak suposatzen duen gizarte jardueraren erdigunetik abiatuz, espazio publikoaren gaia landu nahi da, hau herriaren bizi eta izaeraren oinarrietako bat izan baita betidanik.

**Hau aurrera eraman ahal izateko, pertsona, erakunde, aditu eta eragile ezberdinekin harremanetan jartzen hasiak gaude jada** eta gutxi gora-behera 2 urte iraungo dituen prozesu berritzaile bat abiatzea dugu helburu.

# ESPAZIO PUBLIKOA

## herritarrak, eragileak, adituak eta erakundeak elkarlanean

Lanketa horren baitan, **hausnarketaz gain ekintza eta proposamen zehatzak ere gauzatuko dira. Oinarritzat hartuko dira orain arteko prozesuetan jasotako iritziak eta egindako lana.** Besteak beste, azterketarako eta lanketarako gai izango dira:

**ZALDIBIAKO PLAZAN KOKATUZ:**

- Estalpea
- Plazaren ohiko erabiltzaileen beharrak (haurrak, adinekoak, zaintzaileak…)
- Ostalaritzarako terrazak edota bestelako jarduera sozio-ekonomikoak plazan
- Kultur eragileak eta plaza
- Plazako eguneroko bizitza

**ESPAZIO PUBLIKOA OROKORREAN:**

- Zeren arabera eraiki da eta eraiki nahi dugu denon espazioa?
- Espazioa haurren ikuspuntutik, ikuspegi feministatik, ingurumen ikuspuntutik…

# ESPAZIO PUBLIKOA

## herritarrak, eragileak, adituak eta erakundeak elkarlanean

- Gaurko saioarekin 2019an hasitako Zaldibi Plazara! prozesuari amaiera eman diogu jasotako ondorioak bilduz. Ondorio hauek oinarri garrantzitsua izango dira datozen urteetan.

- 2021ean egingo diren lanekin agerian izango dugu urte bukaerarako plazaren dimentsio berria.

- Udazkenetik aurrera, prozesu berritzaile bat abiatuko dugu, hausnarketa bultzatzeaz gain, jaso diren eta jasoko diren beharrei herrigintza ikuspegi integral batetik erantzuteko.


ZALDIBIA:
GAURDANIK GEROA ERAIKIZ...
zer da ESPAZIO PUBLIKOA?
norena da KALEA?
herria bizitza espazioa geroa

HIRITIK AT

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGATIK!

ZALDIBIAKO
UDALA